

azpeitian^{zer?}

udal aldizkaria

164. zenbakia
2014ko apirila

Ekonomia suspertzeko aurrekontuak

*Aurrekontu orokorra 18.133.862 eurokoa
da eta hortik, milioi bat euro pasa
enplegua eta formazioa sustatzeko izango dira*



Energia
Egitasmo eta
proiektuak aurkeztu
dira



Ekonomia
182.500 euro banatu
dira herriko
ekintzaileen artean

ale honetan zer?

3 Zerbitzuak eta erabakiak

4 Azpeitibili

6 Gazte lokala

8 Ekonomia

12 Aurrekontuak

14 Energia

15 Liburutegia

16 Turismoa

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Pentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailatza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74



botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Apirilaren 22, 26, 27 eta 30

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Apirilaren 17, 18, 19, 20, 21 eta 29

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Apirilaren 24

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Apirilaren 16 eta 25

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Apirilaren 23 eta 28

zerbitzuak eta erabakiak

Udal Liburutegia



Azpeitiko Udal Liburutegi Publikoak informazioa eskuratzea, prestakuntza bideak jartzea, aisialdi eta kulturarako iturriak eskuratu eta erabiltzeko garaian herritar guztiei aukera berdintasuna bermatuko duten zerbitzuak eskaintzea du helburu. Liburu, aldizkari, egunkari, DVD, CD, CD-Romak zein bideoak mailegatzeko eta kontsultatzeko aukera dago. Sarrera, guztiz doakoa da.

Azpeitiko Udal Liburutegiak honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Kontsulta eta ikasteko gelak.
- Hemeroteka.
- Ikus-entzunezkoak eta multimedia materiala.
- Informazio eta erreserba zerbitzua.
- Mailegua.
- Herriko bilduma.
- Irakurzaletasuna suspertzeko edo bultzatzeko ekintzak.
- WIFI sarea.

Ordutegia

NEGUAN

Astelehenetik ostiralera

Goizetan 09:30-13:00

Arratsaldetan 16:00-20:00

Larunbatetan 09:30-13:00

UDAN

Ekainaren azken astean, uztailean, abuztuan (bigarren hamabostaldian) eta irailaren lehen astean.

Astelehenetik ostiralera

Goizetan 08:30-14:00

Arratsaldez itxita

Abuztuko lehen hamabostaldia itxita.

Udako eta Aste Santuko larunbatak itxita.

erabakiak

Martxoaren 11an egindako Udalbatzan honako erabakiak hartu ziren:

- 1.- Udalbatzak 2013ko abenduaren 3an eta 2014ko urtarrilaren 7an, otsailaren 4an eta otsailaren 13an egindako aktak onartu ziren.
- 2.- Azpeitiko baserritarrek behar duten gutxieneko ura-rengatik diru-laguntza emateko oinarriak behin betiko izaeraz onartu ziren aho batez.
- 3.- Azpeitiko Udal etxebizitza tasatuak arautuko dituen udal agintarauaren aldaketa: etxebizitza kontzertatuak edota prezio itundutako etxebizitza libreak, aho batez onartu zen.
- 4.- Prozedura irekiaren bidez Azpeitiko Baigera 1 eta Baigera 2 taberna-jatetxeen kudeaketa esleitzeko kontratazio espedientea berretsi zen aho batez.
- 5.- Azpeitiko Izarra eremuan Altuna y Uria S.A.k egindako lokalen lagapena aho batez onartu zen.
- 6.- Martxoaren 8an ospatuko den emakume nazioarteko egunerako Azpeitiko Udalaren adierazpen instituzionala aho batez onartu zen.

Apirilaren 1eko ohiko Udalbatzan, berriz, hauek izan ziren hartutako erabakiak:

- 1.- Udalbatzak 2014ko martxoaren 11an egindako akta onartu zen.
- 2.- 2013ko aurrekontuaren likidazioak onartzeko Alkatetzak emandako ebazpenaren berri eman zen.
- 3.- 2014ko ekitaldiaren aurrekontuan 1 kreditu aldaketaren berri eman zen..
- 4.- Azpeitiko gazte lokalen ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaion Bildu eta Hamaikabaten aldeko botoekin. EAJ kontra agertu zen..
- 5.- Baratzta publikoen kudeaketarako ordenantzari hasierako onarpena eman zitzaion Bildu eta EAJren aldeko botoekin. Hamaikabat abstenitu egin zen..
- 6.- Etxez etxeko zerbitzua, eguneko zerbitzua eta esku-hartze psikosoziala kontratuaren esleipena aho batez onartu zen.
- 7.- Oroimen historikoa ikertzeko hitzarmena aho batez onartu zen.
- 8.- Azpeitiko LIBRE lan-taldeko mozioa aho batez onartu zen (EAJk eta Hamaikabatek ez zuten parte hartu bozketan).

Ibiltzea, sendagairik onena



Azpeitibili osasun ibilbideen lehen taldea

Osasun ibilbideak ekimena abian jarri da herritarren artean ariketa fisikoa sustatzeko asmoz

Uriketa fisikoa egitea ohitura bihurtu herritarren artean, eta bide batez, giza harremanak sustatu. Hauek dira Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Azpeitiko Osasun Zentroak, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Kirol sailak eta bolondresa taldeak elkarlanean sortu duten Osasun Ibilbideak ekimenaren helburu nagusiak. Osasun Ibilbideak, AzpeitIBILI proiektuaren baitan antolatu den lehenbiziko ekintza da.

Horrela, taldean oinez ibiltzera irtetzeko aukera da, herrian ditugun bidegorri eta paseotaz gozatzeko. “Herritarrak parte hartzera animatu nahi ditugu. Ea urte luzez irauten duen, oso ekimen polita baita. Gainera, zera nabarmendu nahiko nuke; Plan Estrategikoa baitan, diagnostikoa egin genuen eta behar hau zegoela detektatu zen. Ondoren, proiektua ideatu eta burutu da, abian jarri arte”, agertu du Eneko Etxeberría alkateak.



Dagoeneko hasi dira saioak, eta talde polita sortu da. Hala ere, nahi duenak udaletxe azpira agertu besetik ez du, astelehen eta ostegunetan 10:00etan eta ibilbideetan parte hartzeko aukera izango du. Lau dira programatu diren ibilbideak:

1. IBILBIDEA: IGERILEKUA - LOIOLA

(Sanjuandegitik)

2.- IBILBIDEA: IGERILEKUA-LOIOLA

(tren geltokia)-KIROLDEGIA (bidegorritik)

3.- IBILBIDEA :

UDALETXEA-KIROLDEGIA (Azoka

albotik/ San Martin Egoitza aurretik)

4.- IBILBIDEA:

UDALETXEA – LASAO / LOIOLA

Hala ere, eguraldi txarra egiten duen egunetan, estalitako Udal azpiegiturak erabiliko dira ariketa fisikoa egiteko.

“Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa” onartu izateak, Udal Kirol politikan ere eragin zuena izan du, planteamendu aldaketa ekarri



azpeitibili

Maidar Aizpurua
Monitorea

““Ariketa fisikoa egin eta lagun artean egoteko aukera aproposa dela iruditzen zait. Dena lehen pauso batekin hasten da” ”

baitu. Izan ere, kirol praktikaren inguruan, egun arte izan dugun ikuspegi instrumen-tala baino, garrantzia eta hotsa pertsonan jartzen du, osasunaren kontzepzio zaba-lagoa bilatuz. Horrela, jarduera fisikoaren sustapena biztanleriaren adin muga eta proiektu ezberdinen ardatz nagusi gisa garatzeko ardura hartu dugu: AzpeitiBILI-plana bultzatuz (guztion bizi baldintzetan eragin zuzena duen bitartekoa delako).

Zer da AzpeitiBILI plana?

AzpeitiBILI ekimenak herritarrei dei egin nahi die norbanako aktibo izateko, bizimodu sedentarioa utzi eta kalera ateratzeko eta mugitzeko. Ariketa fisikoa egitea azpeitiarron ohitura bihurtu nahi da. Adin guztietako jendea: umeak, gazteak, gurasoak, helduak, aitona-amonak... norbere mailan eta gaitasunen arabera, gure egunerokoan ibiltzeko ohitura hartzea: paseoan, bizikletan, lasterkan, patinetan, txakurra paseatzen, eskailerak igoen...



Informazioa:

EGUNAK:

astelehen eta ostegunetan

ordua:

10:00etatik 11:30era

irteera:

Azpeitiko udaletxeko arkupetan

- Kirol Saila: **943 15 00 95**
- Gizarte Zerbitzuak: **943 15 71 92**
- Anbulatorioa: **943 02 54 00**

Gazte lokalak arautu dira

Gazte lokaletan sor daitezkeen arazoak murriztu eta bizikidetza bermatzea bilatzen du ordenantzak



Mikel Ibarzabal, Imanol Amenabar, Kontxita Martija eta Iñaki Portilla zinegotziak.

azpeitiko Udalak, gazte lokalen erabilera arautzeko ordenantza onartu du lehendabiziz Modu honetan, azken urteetan herriko bizilagunen eta gazteen artean hainbat arazo sortu dituen aferari irtenbidea emango zaiola uste du Udalak. Izan ere, gazte lokalak fenomeno bat bilakatu dira, bai gure herrian eta ingurukoetan, eta honen aurrean pauso bat eman beharra zegoen, gazteen lokalak erregulatzeko beharra ikusi zen. Gazte lokalak eskubide bilakatu dira, ezarritako baldintzetan, baina eskubide guztiek bezala obligazioak dakartzate.

Horretarako, hilabete batzuk iraun dituen parte-hartze prozesua jarri zen abian. Bertan, gaiarekin inplikaturik zeuden alde guztiekin (gazteekin eta gaztetxoekin) jarri zen harremanetan Udala eta hauekin egindako bileretan jasotako ideia eta proposamenekin osatu da araudia.

“Ordenantza osatzeko parte-hartze prozesu bat egin da gazteekin eta gaztetxoekin gurasoekin”

“Hasieratik esan genuen gazteek lokalak erabiltzeko eskubidea dutela, baina eskubide orok bere obligazioak ere baditu eta ordenantza honen bidez, eskubide eta betebeharrak arautu dira. Jakitun ginen gazte lokalen errealitatea oso konplexua zela, espazio alegalak baitziren, eta bakoitzak dituen baldintzak eta ematen

zaien erabilera, oso desberdina dela. Baina, lokalen eta bizilagunen arteko bizikidetza egokia izan behar du, oreka egon behar du, eta argi dugu guztion ahalegina beharrezkoa dela gazte eta bizilagunen harremanak hobetzeko”, adierazi du Gazteria saileko batzordeburua den Imanol Amenabarrek.

Segurtasun arazoak, bizilagunen kexak, segurtasun falta... Arazo horiek konpontzeko sortu da araudia eta bere xedea, batez ere gazteek aisaldi alternatiborako erabiltzen dituzten lokalen jardura eta elkarbizitza komunitariorako irizpideak arautzea da, alde batetik. Eta erabiltzaileei eta auzotarrei sor dakizkiekeen traba eta arriskuak ekiditzea eta erabiltzaile zein auzotarren eskubide eta betebeharrak zehaztea da, bestetik. Horrela guztien baldintzak hobetuko direlarik.



Honela, ordenantzaren helburuak honako hauek dira:

a) Gazte lokalek gutxieneko baldintzak betetzea, hau da, bizigarritasun, higiene eta erosotasunari dagozkienak eta baita segurtasunari eragin liezazkiekeenak ere.

b) Gazte lokalen erabilera eta auzotarren eskubideak bateratu, dagozkion neurri zuzentzaileak hartuta.

c) Gazte lokaletan sor daitezkeen arazoak murriztu eta bizikidetzaren bermatu.

Araudiari dagokionez, berriz, nabarmendu beharreko puntuak honako hauek dira:

- Alde batetik esan, gazte lokalek kontratu bat izan beharko dutela, eta aseguruak egon beharko dute.
- Azpiegiturei dagokionez, lokal guztiek komuna eta ur-hartune bat izan

beharko dute, eta egoera onean dauden su-itxalgailuak. Sukaldea izateko aukerari dagokionez, gutxienez 18 urte izan beharko dituzte eta beharrezkoa izango da aurretik eraikineko jabeekideen, iddatzizko baimena aurkeztea. Gainera, kasuz kasu azertu beharko da bakoitza. Beti ere, elkarte gastronomikoen segurtasun neurri berdinak bete beharko dituzte, hau da, ke-kanpaia eta eraikinaren tailaturaino tximini bat izan beharko dute eta sukaldeko instalakuntzek, instalazio ziurtagarria izan. Gainera Udalak, lokal horiek urtean behin ikuskatuko ditu.

Erregistro fitxak

Ordenantza indarrean jarri eta hilabeteko epean gazte lokaletako ordezkariak, Gazte Informazio Bulegoan aurkeztu beharko dutela lokalera iritsiko zaizkien edo Gazte Informazio Bulegoan bertan aurkituko dutezen erregistro fitxak.



Ekintzailetasuna, langabeziaren argia

Langabezian zeuden hiru herritarrek pausoa eman eta enpresak sortu dituzte Iraurgi Berritzenen eskutik

azpeitia, eta bailara orokorrean, egoera ekonomiko txarra igarotzen ari den une honetan, hiru ekintzailek enpresa berriak jarri dituzte abian Iraurgi Berritzenen eskutik. Hirurak langabezian aurkitu ziren, baina egoera txarrei aurre egitea badagoela erakutsi dute. Bidea zaila eta iluna dela onartzen dute, baina hirurak ere ados daude emaitzak merezi duela.



Joakin Eiguren.

Graficas Zubi orain 3 urte eta erdi itxi zuten eta Joakin langabezian geratu zen. “Bi urte egin nituen ondoren Glual enpresan lanean baina, berriro langabezian aurkitu nintzen. Zerbait gustukoa egin nahi nuen, Azkoitian kirol denda gutxi zirela eta bat zabaltzea pentsatu nuen”. Joko Kirolak saltokiak egun gutxi daramatza zabalik, baina zerbait desberdina eskaintzen du: “Biomekanika ikastaroa egin nuen eta orain bezeroei korrika nola egiten duten edota nola hobetu dezaketen azterketa eskaintzen diet. Gainera, kirol ikasketak egindako hiru gaztek euren txokoa dute eta bertan kirol eta osasun aholkularitza eskaintzen dute”.



Ion Odriozola.

17 urte eta gero, Corrugados enpresa utzi egin zuen eta bere kontura lan egiteko gogoari eutsiz, animalien arazoei irtenbidea ematen dien enpresa sortu zuen iaz, Zuzkitu. “Animaliak betidanik gustatu izan zaizkit eta elikaduratik hasi nintzen, baina orain atal desberdinetan sartzen ari naiz, espezializatzeko asmoz. Bidea ez da erraza, bakardadean sentitzen zara, baina Iraurgi Berritzenek asko lagundu dit. Gustukoa duzun zerbaitetan lan egiteak balio erantsia ematen dio”, dio Odriozolak.



Lourdes Balda.

Lourdes Balda ingeniaria langabezian geratu zen Azkue itxi zenean. Bere lana gustukoa zuenez, Patxi Tenarekin bat egin eta Bapatek ondasun-erkidegoa sortu zuten. Bulego teknikoa da, langile gutxi edota bulego teknikorik ez duten enpresei zerbitzua eskaintzeko. “Zaila da bidea irekitzea, garai hauetan batik bat, baina poliki-poliki ari gara lanean. ASskotan ez gara ekintzaile izatera ausartzen, instituzioek ez dutelako asko laguntzen, baina Azpeitiko Udalak, adibidez, laguntzak eman ditu. Herritarrak animatu nahiko nituzke ekintzaile izatera, probatzera, bestela ez egitearen damua izan dezakete eta”, esan du.



Iñaki Portilla zinegotzia, Eneko Etxeberria alkatea eta Iñaki Zabaleta Azpeitia Lantzeneko teknikaria.

Udalak **182.594 euro** banatu ditu 2013an jarduera ekonomiko berriak zabaldu dituztenen artean

Enplegua sustatzeko bideratutako diru-laguntzen balorazio positiboa egin da

azpeitiko krisi ekonomikoaren aurrean, Udalak azterketa sakona egin zuen legegintzaldi hasieran eta bi aukera zeudela ulertu zen: ez egin ezer eta ardurak dituztenei exijitu eta jarrera pasiboa izan, edo gauzak egiten hasi, beti ere Udalaren neurrian. Herritarren kezka nagusiak ekonomia eta gizarte zerbitzuak direla ikusirik ordea, abian jarri da Udala. “Beraz, Udalak apustu garbia egin behar du zentzu horretan eta ia, 700.000 euro bideratu genituen lehenbizikoz sustapen ekonomikora. Hauetatik 350.000 ekintzailetasuna bultzatzera bideratu ziren eta hortik, 182.594 euro banatu dira. Gainontzeko partidarekin, beste ekimen batzuk ere jarri ditugu abian; orain gutxi aurkeztu genuen Enplegu Zentroa edota bereziki landu ditugun hezkuntza eta for-

makuntza saioak. Esfortzu handia izan da herriarentzat, beste lekuetatik kendu behar izan baitugu dirua”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Honela, 2013 urtean enplegua, berrikuntza, dibertsifikazioa eta ekintzailetasuna sustatzeko diru-laguntza deialdia egin zen. Deialdi horretan, 2013 urtean abian jarritako enpresa edota jarduera ekonomiko berriak abian jartzeagatik laguntzak eskaintzen ziren.

Eskaerak Azpeitia Lantzenetik kudeatu dira eta hauek izan dira emaitzak:

Aurkeztu diren eskaerak: **41**.
Hauetatik, **39 onartuak** izan dira,
2 baztertuak edo ez onartuak.

Banatu den diru laguntza:
182.594 euro.

Udalak balorazio positiboa egiten du: “Herritarrek oso ondo erantzun dute eta beraz, aurtengo aurrekontuetan 900.000 euro bideratzea proposatuko dugu, izan ere, enplegua eta ekintzailetasuna sustatzeko esfortzu berezia egiteko prest dago Udala. Gainera, azpeitiarrak animatu nahi ditugu jarduera berriak abian jartzera eta Udalera edo Azpeitia Lantzeneko bulegora etortzeko, laguntzak eskatzeko eta dituzten edozein zalantza galdetzeko, argituko zaizkie eta”, esan du Industria, Merkataritza eta Turismo zinegotzia den Iñaki Portillak.

Ekonomia sustatzeko akordioa sinatu dute Azpeitia eta Azkoitiko udaletako alderdi politikoek

Eskualdeko garapen ekonomikorako arlo estrategikoak zehaztu dituzte eta berme politikoa ematen zaio



Azpeitia eta Azkoitiko Udaletako eta Iraurgi Berritzeneko ordezkariak

I egentzaldien eta alderdien ordezkarien gainerik, sozioekonomia sustatzeko elkarlanean aritzeko akordioa sinatu dute Bilduk, EAJk, Hamaika Batek eta PSEk. Eskualdearen sustapen ekonomikorako politikek eta estrategiek lehentasuna dutela adostu dute tokiko erakunde eta alderdi politikoek, eta udaletako ordezkari politikoekin akordioarekin babestu dute erabakia.

“Akordio hau arlo politikoan kokatzen dugu, eta bere oinarria da Urola Erdiko sustapen ekonomikoaren inguruko estrategiak garatzea. Gure ustez ezinbestekoa da jarduera ekonomiko

berriak sustatzeko oinarriak finkatzea etorkizuna gure bailararentzat ona eta oparoa izateko”, adierazi dute akordioa sinatu duten alderdietako kideek.

Batez ere, bi helburu nagusi lortu nahi dituzte: “Uste dugu eskualdeko garapen ekonomikorako arlo estrategiko nagusi batzuk zehaztu ditugula, eta gainera, garapen horri berme politiko bat ematen diogula.

Alderdi politikoekin babesa ematen diogu. Hemen pertsonalki baino gehiago, alderditik ari baikara hizketan, eta horrek babesa ematen dio akordioari”.



iraurgi Berritzen

“Guk eskumen batzuk ditugu, eta horiek ditugun heinean konpromiso hauek aurrera ateratzen saiatu beharko genuke ”

Gaur arte, eskualdearen egitura ekonomikoa sektore industrial helduetan oinarritu da gehienbat, sektore horiekiko menpekotasun handia sortuz. Azken urteotako krisiak ondorio larriak eragin ditu bailaran: enpresen itxiera eta langabezia tasen hazkundera, hain zuzen. “Egia da gure bailara krisiak gogor jo duela eta zerbait egiteko premia badugula. Bai tokiko erakundetatik bai alderdi politikoetatik zerbait egin beharra dugu, denok batera, eta horixe da akordio honen helburua. Guk eskumen batzuk ditugu, eta horiek ditugun heinean konpromiso hauek aurrera ateratzen saiatu beharko genuke, bailarak behar dituen zerbitzuetara egokituz eta horiek eskaintzeko baliabideak jarritz”.

“Egoera eta gure esperientzia kontuan izanda, Azpeitia eta Azkoitiko udal ordezkariak eta gure alderdi politikoek

konpromisoa hartzen dugu prozesu hau lehenetsi eta babesteko". Konpromiso hori hartu dute ondorengo bost terminoetan:

1. Legealdiak dirauen bitartean bai alkatetzatik eta bai oposizio alderdietatik prozesuaren jarraipena bermatuko dute. Prozesuaren jarraipena egingo dute garapen agentziaren baitan, eta horretarako Garapen Guneako bileretan parte hartzera deituko dira.
2. Dibertsifikazio estrategiaren berri, udal bakoitzeko alderdietara eramatea. Aktibitate ekonomiko berria sortzea bailaran, egiten dakigunetik beste jarduera edo berrira bilakatuz eta merkatu berriei egokituz. Hemen gaudenok lan hori egin dugu eta babesa lortu dugu.
3. Hurrengo hauteskundeetarako alkatetegiak izendatzen direnean, hauek Garapen Guneako bileretan parte

hartuko dute, eta legealdia amaitu aurretik prozesuaren berri izango dute.

4. Hauteskundeetako emaitzak direnak direla ere, prozesu honen transferentzia egiteko denbora eta borondatea jartzea, prozesua legealdi aldaketagatik moteldu ez dadin.
5. Eskualdeko alderdi politikoen artean, hau da, ordezkari aktiboen nahiz ohien artean, talde berri iraunkorra osatu legealdiaz haratago, eskualdearen garapenerako elkarlana helburu izanik lan egingo duena Think Tank ere duan.

Hartutako konpromisoekin batera, Urola Erdiaren Dibertsifikazio Ekonomikoa Sustatzeko Iraurgi Berritzenetik garatzeko lan lerro nagusiak ere adostu dituzte:

- **Ehun ekonomikoaren dibertsifikazioa sustatzen lagundu**

du bailarako enpresei sektore eta tendentzia berrietara egokitzeko.

- **Bailarako enpresen arteko elkarlanaren aldeko apustua.**
- **Enpresen internalizazio prozesuak sustatzen lagundu.**
- **Formakuntza.**
- **Eskualdearen egokitzapenerako, eragileen parte hartzea eta elkarlana indartuko dira proiektu kolektibo estrategikoak sustatzeko.**
- **Zailtasun ekonomikoak eta juridikoak dituzten enpresentzako aholkularitza martxan jartzea eta indartzea.**
- **Ekintzailetasuna sustatzea.**

Bailarako mapa industrial osatzen hasi dira

Informazioa guztiz konfidentziala izango dela ziurtatzen da

Iraurgi Berritzenek eta Urola Erdia bailarako udalerriek eskualdeko mapa industrial osatzeko prozesua abian jarri dute. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Europar Batasunaren laguntzarekin egiten hasi diren proiektuaren helburua eskualdean kokatzen diren 327 enpresen jarduerari eta gaitasunen inguruko informazioa bildu eta elkarlanerako nahiz aukera industrial berriak detektatzea da.

"Gure eskualdeko ehun industria nolakoa den ezagutuko dugu, batez ere teknologia eta gaitasun aldetik. Gainera, baliagarria izango da laguntza teknologikoak bideratzeko, elkarlanak martxan jartzeko, dibertsifikazio prozesuak martxan jartzeko eta enpresa berriak abiarazteko",

azaldu du Azpeitiko alkateak, Eneko Etxeberriak.

"Baliagarria izango da laguntzak bideratzeko, elkarlanak eta dibertsifikazioa martxan jartzeko eta enpresa berriak abiarazteko"

Arduradunek enpresak animatu nahi dituzte proiektuan kolaboratzera, ahalik eta informazio gehiena izan dezaten; "Horrekin ikusiko dugu zein harreman posible egon daitezkeen eskualdeko enpresen artean, eta noski, bailaraz

kanpokoekin ere", esan du Iraurgi Berritzeneko arduraduna den Jesus Agirrek.

Iraurgi Berritzeneko Begoña Beobidek azaldu duenez, proiektua 2013ko azaroan onartu zen eta urtarilean jarri zen abian. IMH Elgoibarko Makina Erramintaren institutuarekin eta Saiolanekin galdeketa prestatu dira eta apirila amaierako informazioa jasota izatea espero dute, "ahalik eta argazki zabalena izateko, erantzun positiboa eskertuko genuke. Guztiz konfidentziala izango da informazioa. Guk bakarrik kudeatuko dugu informazioa eta elkarlana posible dela ikusiz gero, enpresekin hitz egingo genuke", amaitu du.



Udalbatza 2014ko aurrekontuak bozkatzeko unean

Ekonomia sustatzeko milioi bat euro baino gehiago bideratuko ditu Udalak 2014ko aurrekontuetan

Aurtengo aurrekontu orokorra 18.133.862 eurokoa izango da

Udalak onartu ditu 2014ko aurrekontuak. 18.133.862 euro izango ditu Udalak urte honetan zehar, otsailaren 13an egindako ez-ohiko bilkuran Bildu eta EAJ taldeen aldeko bozkei esker onartu ondoren. Hamaikabatek, aldiz, aurka bozkatu zuen.

“Azpeitia aurkitzen den egoera ikusita, Udalak apustua egin beharra du. Honela, aurrekontuak oso ausar tak dira, inbertsio potenteeekin, herritarren beharrei erantzunez egindakoak. Honela, Gizarte Zerbitzuak indartzeaz gain, ekonomia sustatzera begira egiten da inbertsiorik

handiena, milioi bat euro baino gehiago bideratu ditugu ekonomia bultzatu eta enplegua eta formazioa sustatzera” adierazi du Eneko Etxeberria alkateak.

“Gizarte Zerbitzuak indartzeaz gain, ekonomia sustatzera begira egiten da inbertsiorik handiena”

2014ko aurrekontuak osatzeko prozesua iazko urtean hasi zen eta orduan finkatutako edo markatutako ildoak jarraitu ditu. Herritarren iritzi eta akarpenak ezinbestekoak dira Udalarentzat, herritarrak Udal kudeaketan parte aktiboa izatea oso garrantzitsua baita Udal Gobernuarentzat, eta horretarako hainbat bide jarri dira azpeitiarren eskura. Bestetik, aldien ekarpenak jaso nahi izan dira eta adostasunetara iristeko saiakera handiak egin dira eta horren emaitza bezala, EAJ taldeak aurrekontuen alde bozkatu duela da.

AZPEITIKO UDALEKO 2014KO AURREKONTUAK

1. AURREKONTU OROKORRA ETA ENTITATE BAKOITZARENA

AURREKONTU OROKORRA	18.133.862,02
UDALA (aurrekontu propioa)	17.132.093,25
EUSKARA PATRONATUA	574.219,68
UDAL KIROL PATRONATUA	1.092.307,30
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	242.000,00

2. UDALEKO GASTUEN AURREKONTUA DEPARTAMENTUKA

Ogasuna eta Kontuak	962.711,31
Hirigintza eta Ingurumena	1.602.700,00
Hezkuntza eta Euskara	777.530,91
Kultura eta Gazteria	766.300,00
Kirolak	1.597.807,30
Gizartekintza	1.143.620,00
Langileria eta antolakuntza	5.235.614,32
Festak	495.000,00
Zerbitzu orokorrak	3.161.700,00
Alkatetza	231.000,00
Industria, merkataritza eta turismoa	810.209,41
Parekidetasuna	113.900,00
Baserriak	234.000,00

GUZTIRA

17.132.093,25

3. 2013KO AURREKONTUAREKIN ALDERATUZ

	2013	2014
UDALA (aurrekontu propioa)	16.304.180,33	17.132.093,25
EUSKARA PATRONATUA	602.627,75	574.219,68
UDAL KIROL PATRONATUA	1.094.266,28	1.092.307,30
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	368.321,00	242.000,00
OROKORRA	17.502.851,33	18.133.862,02

Honela, 2014ko aurrekontuak osatzeko bidean, hiru izan dira erabilia iturriak:

- 1) Plan Estrategikoa: Udalak Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa egin berri du eta, ondorioz, aurrekontuekin lotu ditu dokumentuaren helburu estrategikoak eta ekintza planak. (Urtarrileko Azpeitia zer? Aldizkarian ezagutu ditzazkezu Plan Estrategikoaren ildo nagusiak)
- 2) Azpeitiko Udal Gobernuaren osatzen duten alderdi politiko guztien ekarpenak: Udalaren osatzen duten alderdi politiko guztiak (Bildu, EA) eta Hamikabat) ekarpenak jaso nahi izan dira eta ekarpen horien inguruan, eztabaida sakonak eman dira sail bakoitzeko batzordeetan.
- 3) Herriarren ekarpenak, "Denon Artean" prozesu parte hartzailearen bitartez: Prozesua denontzat irekia izango da eta planteatu daitezkeen edukiez gain, bere funtzioa herriarren ekarpenak jasotzea izango da. Bi mailatako bilerak planteatuko dira; arloetakoak eta auzoetakoak. Era

berean Udalak auzo-alkateak dituen lekuan interlokutoretzat izango ditu, beraiek ere herritarren nahiak eta ekarpenak egiteko.

Orain bi urte, proba moduan hasitako egitasmo hura egonkortutako errealitate sendo bat da gaur egun. Orain, azpeitiarrek ez lukete ulertuko Udalak herritarren parte-hartzerik gabe kudeatzea, ez eta aurrekontuak herritarren ekarpenik eta kontrasterik gabe osatzea ere. "Horren frogarria da, Udalaren parte-hartzeko eskaintzari herritarrek emandako erantzuna. Ekarpen ugari jaso dira aurretik, 400 herritarrek baino gehiagok hartu dute parte. Eta guk, Udal Gobernuak gaur egungo kudeatzaileok Azpeitiko Udalak kontutan hartuko ditugu ekarpen horiek aurrekontuak osatzekoan", adierazi du Eneko Etxeberria alkateak.

Proiektuen inguruan herritarrek ekonomia eta gizarte beharren betetzearen garrantzia oso inportantea dela berretsi dute. Eta neurri berean, atal konkretuetan ekarpen zehatzak egin dira. Eta jasoak geratu dira.

Egitasmo honetan sakontzeko bi tresna jarriko ditu abian Udalak:

- Egunerokotasunean parte-hartzea indartu, horretarako herritarren eskaerak hobeto eta azkarrago erantzuteko zerbitzua indartuko dugu barne mailan.
- Tresna teknologikoak landuko ditugu. Prozesuaren ikuspegitik

2014ko prozesuan zehar hainbat baliabide eskaini dira herritarren parte-hartzea sustatzeko. Auzo

eta arloetako batzarrez gain, etxez etxe banatutako galdetegiak ere izan dira eta berrikuntza moduan, galdetegiak jasotzeko buzoiak ezarri dira auzoetan. "Baliabide berriak eskaintzeak, ekarpen eta iritzi ugari biltzera ekarri gaitu. Heeritar ugari izan dira galdetegien eta buzoien sistemaz baliatuz, euren iritzia eman nahi izan dutenak. Aipatzekoa da gainera, jasotako zenbait ekarpen oso landuak direla. Uste dugu, eskaini diren tresna guztiekin nahi duenak parte hartu ahal izan duela", gaineratu du alkateak.

Azkenik, herritarrek oso modu positiboan baloratu dute prozesua, ehuneko ia ehunak Udalak gardentasunez jokatu duela aipatu baitu. Beraz, 2012an abian jarritako lehen esperientzia pilotua, sendotu eta indartu dela esan daiteke.

Honela, 2014ko aurrekontuen ildo eta inbertsio nagusiak honako hauek izango dira:

1. AZPEITIKO ENPRESA SAREAREN LEHIAKORTASUNA ETA IRAUNKORTASUNA SUSTATU, UDALERRIARENTZAT ESTRATEGIKOAK DIREN ARLO EZBERDINAK BULTZATUZ ETA ENPLEGUA SORTUZ.



Krisi ekonomikoari aurre egitea da helburu nagusia eta horregatik eta horretarako, sustapen ekonomikoa da inbertsio nagusia. Atal hau ezin da Udal aurrekontuekin soilik ulertu, Iraurgi Berritzen garapen agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak ere kokatzen dira bertan... Era berean, Udalaren beste arlo garrantzitsuak, adibidez, tasak, zergak eta prezioak ere kontutan hartzen dira.

Hemengo inbertsio nagusiak honako hauek dira;

- Eskualdeko plana.
- Transformazio industrialeko proiektua: 150.000 euro bideratuta Aldunditik
- Sustapen ekonomiko plan propioa: 350.000 euro
- Garapen komunitarioa, formazioa Udalak zuzenean ematea: 95.000 euro
- Iraurgi Berritzen: 245.209 € (Loiola Berrikuntza barne)

- Lanpostu zuzenak sortzeko aurreikuspena, 8 lanpostu lanaldi osoz: 182.000 euro.

- Iraurgi Berritzenen adostutako Azkoitia eta Azpeitiko Sustapen ekonomiko plana: 150.000 euro.

Ekonomiari bideratutako inbertsio osoa 1.022.209 eurokoa izango da beraz. Gainera, Berdura Plazako proiektuaren edukia ere ekonomiaren ildotik beteko da: merkataritza, zerbitzu ekonomikoak.

Lehen sektoreari dagokionez, baserri bi-deak garbitzea (40.000 euro), Urkome (27.000 euro) edota ganadu lehiaketak sustatzeko (15.000 euro) dira partida garrantzitsuenak.

2. HERRITARREN ONGIZATEA ZIURTATU ETA BIZI-KALITATEA HOBETU, TALDE EZBERDINEI OINARRIZKO ZERBITZUETARAKO SARBIDEA AHALBIDERATUZ ETA ETXEBIZITZA POLITIKA SOZIALA SUSTATUZ.



Gizarte Zerbitzuak indartzeko apustua- rekin jarraitzen da. Aurrekontuetan edu- kiak indartu dira, bekak, etxez etxeko zerbitzua, garapen komunitarioa, esku- hartze psikosoziala, bizikidetzeta eta hiru- garren adina, besteak beste.

- Parekidetasunaren aldeko apustua mantentzen da.
- Etorkinen gaiari tratamendu berezia nahi zaio egin, eta harrera protoko- lo bat lantzen ari da Udala. Gainera, diru-laguntzen inguruko informazioa indartu nahi da.
- Gazte lokalen arauketa lantzen ari gara dagoeneko.
- Hezkuntzaren baitan: hitanoa, ohiturak, azpeitiar literatura eta unitate didaktikoak dira egitasmo nagusiak.
- Herritarren artean zibismo baloreak eta elkarbizitza sustatzeko egitas- moak martxan jartzeko asmoa.

Hemengo inbertsio nagusiak honako hauek dira;

- Alokairu soziala sustatzeko: 50.000 euro.
- Langabetuei eta erretiratuei bideratutako baratzak; 85.000 euro.
- Gazte lokalen arauketa: 4.000 euro

3. HERRITARREI ZUZENDURIKO HEZKUNTZA ESKAINTZA EGOKITU ETA EUSKARAREN SUSTAPENA EGIN



Hemengo inbertsio nagusiak honako hauek dira;

- Haur eta gazteentzat ekintzak: 40.000 euro.
- Herriko festen antolaketa; 248.000 euro.
- Oroimen historikoa berreskuratzea; 25.000 euro

4. HERRIKO TALDE EZBERDINEI ZUZENDURIKO KULTUR ETA KIROL ESKAINTZA DIBERTSIFIKATU ETA EGOKIA DISEINATU ETA ESKAINI



Hemengo inbertsio nagusiak honako hauek dira;
Antzerki Topaketak: 65.000 euro.

Munohaundi aztarnategia; 22.500 euro.

Kultur sorkuntza; 6.000 euro.

5.INGURUMENA BABESTU, ZAINDU ETA HOBETU



Ildo nagusiak honako hauek dira, iraunkortasun baloreetan herritarra sentikortu, hezi, informatu eta udal kudeaketan parte har dezaten bermatzea, Lurzoruaren antolamendu eta hirigintza orekatu baten aldeko apostu egin, udalerriko natur, paisaia

eta bioaniztasuna zainduz eta hiri guneen kalitatea hobetuz, Udalerriko mugikortasun beharrak iraunkortasun irizpideekin asetu, Energia murrizpen, eraginkortasun energetiko eta energia turri berriztagarrien erabileran oinarrituko den energia eredua

lortzea, Kontsumo arduratsua bultzatuz hondakinen sorkuntzaren prebentzioa bultzatzea eta hondakinen kudeaketa egokia bideratzea, Uraren kudeaketa iraunkor eta eraginkorra burutzea eta Udalerriko jarduerak eta udalak berak sor ditzaketen ingurumen inpaktuak murriztu, kontrolak hobetuz, prebentzio neurriak hartuz eta udalean erosketa eta kontratazio publiko berdea ezarriz.

Hemengo inbertsio nagusiak honako hauek dira;

- Baratzak: 80.000 euro. (Diru-laguntza bideratuta Kutxabank-ekin)
- Bidegorri sarea osatzea; 100.000 euro.
- Zabor bilketaren plangintza udaberri-rako diseinatu nahi da; 1.040.000 euro

6.HIRIGINTZA LANAK



Proiektu nagusienak aipatzearen, ondoko inbertsioak aztertu, eta abian jartzeko erabakia hartu du Udal Gobernuak, beti ere arlo tekniko eta finantziarioak baldintzatuta, horretarako ondokoak aurreikusten dira:

- Herriko Berdura Plazaren teilatua eraberritzea.
- Herriko plaza eraberritzea. Oinokotzea eta plazaren eraberritzea ahalik eta prozesu zabalaren bidez egiteko asmo irmoa dago. Oinokotzea erabakiko baltiz, parking alternatiboak proposatzea eta lantzea aurreikusten da.
- Soreasu indartzea: eraikineko parkinga sustatu nahi da Alde Zaharreko bizilagunekin.

• Soreasuko eremu bat, teknikoki posible bada, abian jartzea. Egitasmo konkretuei lekua bilatzea: Urola Erdiko Mankomunitateak behar duen aldi baterako egoitza (Mankomunitatearen esku dago erabakia), musika arloko eragileentzako lekua egokitzea, Elkar-ekin taldeari erabilpena egiteko zati bat uztea, eta beste erakundeei eskaintzen jarraitzea (Aldundia, Jaurilaritza...).

• Basozabal eraikinari erabilera emateko, diru-laguntza konkretu bat eskatu da.

• Iraurgi Ikastetxeak, Haur Hezkuntzako gelak Milagrosatik Betharramera eramatea aztertzea.

• Sanjuandegiko Udal igerilekuko eraikina eraberritzea eta handitzea.



Alfon Lizarralde eta Izaskun Zeziaga teknikariak.

Energiaren inguruko egitasmo eta proiektuak aurkeztu ditu Udalak

“Alkateen Itunarentzat” egitasmoarekin bat egin du Azpeitiko Udalak

azpeitiko Udalaren lehentasunak ekonomia eta Gizarte Zerbitzuak diren arren, AZPEITIA 2025 Plan Estrategikoa onartu berri du Udalak eta plana osatzeko prozesuan, energiaren gaiari tratamendu berezia eman zitzaion, Lerro Estrategiko oso bat honen inguruko sartu zen planaren baitan. Mota desberdinetako ekintzak aurreikusten dira bertan baina denak eraginkortasun energetikoa, kontsumoen murrizketa eta energia berriztagarrien ezarpenarekin zerikusia dutenak dira.

Definitutako ekintzen artean, Europako Alkateen Itunarekin bat egitea zen eta zentzu horretan, 2013ko ekainaren 18an, Azpeitiko Udalak Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) lankidetzak hitzarmena sinatu zuen, “Alkateen itunerantz zuzenduz” egitasmora atxikimendua gauzatzuz.

“2013ko ekainean Energiaren Euskal Erakundearekin lankidetzak hitzarmena sinatu zen”

Europa Batasunak (EB) Klima aldagetakari aurre egiteko asmo handiko helburuak ezarriak ditu 2020ra begira; 20-20-20 zifrekin laburbilduz adierazten dena. Honela, 2020 urtera begira honakoak dira EBk dituen erronkak:

- CO2 isurpenak %20an jaitea
- Herri bakoitzak duen Energia eskaeraren %20a, energia berriztagarrien bidez asetzea
- Energia eraginkortasuna %20an handitzea

Helburu hauek Alkateen Itunean islatzen dira, eta Azpeitiko Udalak helburu berdinak baditu ere, bere beharretara egokitutako egutegia jarraituz ari da lanean.

Udalak EEArekin hitzarmena sinatzean, urtero energiaren alorrean ekintzak gauzatzeko konpromisoa hartu du eta konkretuki honako esparruetan:

- Argiteria publikoa eta Udal eraikinetan
- Garraioan
- Zerbitzu, Bizitegi eta Lehen sektoretan

Aurrera eraman beharreko ekintzak Udalak EEArekin urtero adostuko ditu. Hala ere, 2013 urteko balantzea egin du dagoeneko eta emaitzak oso onak izan direla esan dute; “azken urteetan energia kontsumoa sistematikoki kontrolatzen ari baikara”.



KONTSUMOEN KONTROLA

Azken urteetan, energia kontsumoen kontrol sistematikoa eramaten da, argindarra, gasa, gas-oleoa... eta horrek kontsumo handiena dutenak identifikatzea ahalbidetzen du eta neurri zuzentzaileak aztertzeke aukera.

ARGITERI PUBLIKOAN GAUZATUTAKO EKINTZAK

- **FLUXU ERREGULATZAILEEN EZARKETA.** Gauean, ordu txikitan edo jendea lo dagoenean, argiaren intentsitatea jaistea da helburua. Metodo honekin argi denak piztuta jarraitzen dute, argi-jaistea uniforme da, eta ia ez da antzematen.

Ordu horietan kontsumoaren % 45 aurrezteko lortzen da. Gaur egun argiteriaren %95 (40 kontrol koadroak) sistema honekin ekipatuta daude.

- **ARGITERI - KOADROAK eta FLUXU ERREGULATZAILEAK ZAINTZEKO TELEGESTIO SISTEMAREN EZARKETA.**

Ezinbestekoa da fluxu erregulatzailen funtzionamendu egokia zaintzea eta kontrolatuta edukitzea. Horretarako telegestio sistema berri bat ezarri da 2013an. Web orri batetik sar daiteke eta koadro bakoitzaren parametro elektrikoak, kontsumoak, aurrezpenak, grafikoak, alarmak, eta abar ematen ditu. Telegestio horri ezker argiteria pizteko eta itzaltzeko ordutegia ere

ajustatu egin da (egun-argiz, argirik piztuta ez!) eta oraindik ere hobetzeko asmoa dago.

- **POTENTZIAREN MURRIZKETA.** Instalaturako lanparen potentzia jaistea da helburua.

Horretarako ezaugarri baldintzatzaile hauek izan dira kontuan:

- Gehiegi argizatutako eremuetan lanparak ordezkatzeko. Lanpara txikiagoak jarri, egungo luminariak (egoera onean daudenak) aprobetxatuta.

- Zaharkitutako luminariak eta errendimendu txikiak (argia alferrik galtzen dutenak) ordezkatu. Potentzia txikiagorekin argiztapena hobetzea edo gutxienez mantendzea lortzen da. Atal honetan, pixkanaka, LED teknologia ezartzea aurreikusten da. Dagoeneko zerbait egin da.

Ekintza hauek guztiak aurrera emateko urtero 40.000 euroko inbertsioa egin da gutxi gorabehera (BEZ-a aparte) eta % 60ko diru-laguntzak jaso ditugu (Agenda 21, EVE, Industria saila).



LORTUTAKO EMAITZAK


POTENTZIA MURRIZKETAREKIN

- 1000 bat luminarietan lan egin da azken urteetan (ongi daudenak berritu + zaharkitutakoak aldatu) semaforo guztietan LED optikak ezartzea barne.
- 80 KW dira sistema horrekin murriztutako potentzia. Murrizketa hori egin ez balitz, gaur egun urtero 327.330 KWH gehiago kontsumituko genuke. Gaur egungo argindar prezioarekin (0,139 €/KWH) 45.500 €/urteko aurrezten ditugu.

FLUXU ERREGULATZAILEKIN

Batez beste 971.410 KWH / urteko, aurreztu dira 2012an eta 2013an sistema honekin (aurreko urteetako datu zehatzik ez daukagu). Honek argiteri energia kontsumo guztiaren %34 suposatzen du, gutxi gorabehera. Gaur egungo argindar prezioarekin (0,139 €/KWH) 135.000 €/urteko aurrezten ditugu.

Ekintza hauek guztiak aurrera emateko urtero 40.000 €-ko inbertsioa egin da gutxi gorabehera (BEZ-a aparte) eta % 60ko diru-laguntzak jaso ditugu (Agenda 21, EVE, Industria saila). Ekintza gehienek amortizazio epea urtebete azpikoa izan da.



“Ekintzak aurrera eramateko, urtero 40.000 euroko inbertsioa egin da”

Fluxu erregulatzaileen urteko mantendua 10.000 €/urteko, BEZ-a barne, kostatu da azkenengo hiru urteetan.

GAUR EGUNGO EGOERA

- Guztiari ditugun lanparak: 4.100 gutxi gorabehera.
- Instalaturako potentzia nominala (lanparak + ekipo osagarriak): 659 KW.
- Lanpara bakoitzaren batez besteko potentzia (lanpara + ekipo osag.): 0,16 KW.
- 2013ko Udalaren energia elektriko guztiaren kontsumoa: 3.546.400 KWH (586.946 €, BEZ-a barne).
- 2103ko Azpeitiko argiteri publikoaren energia kontsumoa: 1.882.906 KWH (262.024 €, BEZ-a barne) da. Energia elektriko kontsumo guztiaren % 53 (Kilowatioetan) eta % 44,6 (€-tan).

ETA AUERRERA BEGIRA ZER?

Argiteria Publikoan

- Potentzia murrizketarekin jarrai-tzea, eta gaueko orduetan fluxu erregulazioarekin jarraitzea.
- Pixkanaka LED teknologia ezar-tzea.
- Argiteria publiko osoari AUDITORIA egitea. Gabeziak antzeman eta ondorengo urteetarako planifikazioa egin ahal izateko.

Eraikin Publikoetan

- Hainbat eraikinetan auditoria energetikoak eginak ditugu: Kiroldetia, Udaletxean, Izarraitz pilotalekuan eta Karmelo Etxegarai ikastolan. Ondorioz asko dira proposaturako neurri zuzentzaileak. Inbertsio handiak su-

posatzen dute eta lehentasunak ezarri beharko ditugu.

- Beste eraikin publikoen auditoriekin ere jarraitu beharko da.
- Eraikinen artean, E kontsumitzaile handiena lgerilekua dugu. Mementuan azterketa desberdinak egiten ari gara alde batetik, E berriagarriak txerta-tzeko eta bestetik E kontsumoa murrizteko.
- Eraikinen Ziurtagiri energetikoak lortzea derrigorrezkoa dugu legez. Hasiak gaude, San Agustin elkarguneak badu baina gainontzeko guztiana

lortzeko ere planifikazioa egin behar dugu.

Gainera...

GFAk bukatu berri du bere Energiaren Plana eta laster eskualdeka aurkezten hasiko da, horretarako osatu duen Energiaren mahaian parte aktiboa hartuko dugu.

Azkenik, GFAk, Urola Erdian aurrera eramane duen aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan, 60.000 euroko aurrekontua ezarri da, eskualdearen Subirotasun Energetikoaren inguruko azterlana egiteko. Hor ere parte hartuko dugu.

Mende Erdiko irakurzaletasuna sustatuz

Dionisio Maso herritarraren lanari esker sortu zen liburutegia 1964ko apirilaren 6an



Udaleko, liburutegiko eta herriko kultura eragileetako arduradunak urteurreneko agerraldian

“ Askok eraikin eder hau eraikin gisa soilik ikusten dute. Eraikina oso ederra da, dudarik gabe. Gure herriko eraikin ederrenetakoa. Baina, kanpoaldea ederra bada barrua askoz ederragoa da. Ezagutzen duenak badaki, barruan dago gure herriko altxorrik preziatuena. Eta Azpeitiko leku magikoena”, azaltzen du Eneko Etxeberrria alkateak Azpeitiko liburutegia. 1964ko apirilaren 6an eman zituen lehen pausoak liburutegiak, Dio-

“Etengabe eta era dinamikoan teknologia berrietara egokitzen joan beharko da, aurrez aurreko zerbitzuak indartu eta berrituz ”

nisio Maso herritarrak egindako lana andari esker. Ordudanik 50 urte igaro dira eta hainbat istorio eta aldaketa bizi izan ditu. Juan Astigarraga Viquendi alkatearen legegintzaldian onartu zen liburutegia zabaltzea, Iturri Txiki eraikinean. Hura txiki geratu eta 1989an Enparan Dorretxera (gaur egungo eraikina) igaro zen zerbitzua. Urteetan zehar, eraikin guztia hartu du liburutegiak eta zerbitzu berriak eskaintzera iritsi da.



“Aldaketa ugari izan dira urte hauetan zehar, kuantitatiboak eta kualitatiboak, noski. Urte guzti hauetan liburutegiaren alde lan egin dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu”

“Aldaketa ugari izan dira urte hauetan zehar, kuantitatiboak eta kualitatiboak, noski. Urte guzti hauetan liburutegiaren alde lan egin dutenei eskerrak eman nahi dizkiegu; besteak beste, Dionisio Masso sortzaileari eta Rafael Amezua eta Bernardita Iriarte urte luzez aritutako langileei...”, agertu du liburutegiko arduraduna den Joxe Mari Galarragak.

Etorkizuneko erronkak

Egindako ibilbideari jarraituz, aurrera begiratu behar dela gogorazi du Aranbarrik. Eta zentzu horretan liburutegiak baditu erronkak: “alde batetik etengabe eta era dinamikoan teknologia berrietara egokitzen joan beharko da, aurrez aurreko zerbitzuak indartu eta berrituz. Horrez gain, bizitzan zeharreko prestakuntza babestu, eta bilduma eguneratua

“Liburutegiak 50 urte egin ditu zabalik, eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea da egin diezaiokegun omenaldi hoberena”

izan beharko du. Tokiko izaera, euskal kultura eta kultur aniztasuna ere landu beharko dira. Krisi garai honetan ezinbestekoa izango da profesional, erakunde eta elkarte ezberdinekin lankidetzan aritzea eta plangintza bateragarriak gauzatzea”.

Honela, egindakoak ahaztu gabe eta egin beharrekoak oinarri hartuta, irakurzaletasuna bultzatzen jarraitzeko bidean doa liburutegia eta arduradunek herritarrak zerbitzua ezagutu eta erabiltzera gonbidatu nahi dituzte; izan ere, azken finean “Azpeitiko Liburutegiak 50 urte egin ditu zabalik, eta irakurtzeko zaletasuna sustatzea da egin diezaiokegun omenaldi hoberena. Liburutegi bati gertatu diezaiokeen gauzarik onena bertako liburuak irakurtzea da”, agertu du alkateak.

Liburutegiaren data berezia ospatzeko hainbat ekitaldi prestatu dira:

Apirilak 14

Iñigo Aranbarri idazlearen hitzaldia “Apirila” nobela baten zainak (Azkoitia - Azpeitiko 1766ko matxinada).

Apirilak 23

Liburutegia kalera ekimena.

Apirilak 30

Literatura eta generoa: mahai ingurua. Parte hartzaileak: Laura Mintegi, Tere Irastorza, Aurelia Arkotxa eta Gema Lasarte. Emakume Txokoak eta Udal Liburutegiak antolatuta.

2013ko datuak

- 33.626 dokumentu daude liburutegian. Horietatik 14.219 euskarazkoak dira; 16.253 gaztelarazkoak eta 3.154 beste hizkuntzetan daude.
- 4.980 bazkide ditu.
- 47.179 erabiltzaile izan zituen 2013an.
- 38.609 mailegu egin ziren iaz; helduen atalean 20.611; haur eta gazteenean 16.257, erakundeen arloan 362 eta liburutegi arteko maileguak 1.379.
- 16.871 euskarazko maileguak izan ziren; gaztelarazkoak 20.464, ingelesezkoak 891 eta 383 bestelakoak.
- 4.329 pertsonak erabili zuten iaz liburutegiko Wifia.
- 25 urte betetzen dituzte aurreko ipuin-kontaketek.
- 271 liburutegi daude EAEko liburutegien arteko sarean, eta biblioteken artean maileguak egin daitezke.
- 6 ordenagailu daude: behe solairuko gazteentzako ikasgelan hiru eta lehen solairuko helduenean beste hiru. Ordenagailu eramangarriak konektatzeko modua ere bada.
- 250 dokumentu inguru erosten dira hilero liburutegirako.
- 25 pertsonako taldeak hartzen dute parte liburutegiko literatur saioetan.

Urola Erdia bailaraz gozatzeko aukera izango dute herritarrek Aste Santuan

Eskualdeko altxorak eta produktuak ezagutzeko eta dastatzeko ekimenak antolatu dira

aste Santuak aprobetxatuz, herritar ugari Azpeititik kanpora joango dira oporraldiz gozatzera. Beste asko, ordea, herrian geratuko dira. Azken hauek ere izango dute herriaz eta bailaraz gozatzeko aukera Iraurgi Berritzeneko Turismo sailak prestatu duen ekintza sortari esker.

Gastronomia, ondare artistiko eta kulturala, historia... Azpeitiak eta Urola Erdiak orokorrean eskaintzen dituen baliabideak ugariak dira. Animatu eskualdeko altxorak aurkitzera:

Aste Santuak aprobetxatuz, herritar ugari Azpeititik kanpora joango dira oporraldiz gozatzera. Beste asko, ordea, herrian geratuko dira. Azken hauek ere izango dute herriaz eta bailaraz gozatzeko aukera Iraurgi Berritzeneko Turismo sailak prestatu duen ekintza sortari esker.

Gastronomia, ondare artistiko eta kulturala, historia... Azpeitiak eta Urola Erdiak orokorrean eskaintzen dituen baliabideak ugariak dira. Animatu eskualdeko altxorak aurkitzera:

5 geltoki historian. Algorri naturaren ezagutza etxea (Zumaia), Ekainberri (Zestoa), Loiolako Santutegia (Azpeitia), Lili jauregia (Zestoa), Burdinbidearen Euskal Museoa (Azpeitia) eta Zuloaga Museoa (Zumaia) bisitatzeko aukera ematen duen ibilbidea da. Honela, 20 km barruan kokatzen diren lau geltoki edo zentro hauek bisitatuaz, publikoari bidaia bat egiteko aukera eman nahi zaio zentzu bikoitz batean; bidaia geografikoa alde batetik Zumaia-azkoitiraino Urola bailara zeharkatuz, eta bidaia historikoa bestetik, historiako zenbait aro, pertsonai edo momentu klabe interpretatuz eta lehen eskutik ezagutuz. Gainera, ibilbideko txartelarekin, ekimenarekin atxikituta dauden tabernetako batean "pintxo pote" bat hartzeko aukera dago.

Lurrunezko Trena. Aste Santuko oporretan zehar, apirilaren 17tik 21era, biak barne, Museoak egunero Lurrunezko bi Tren zirkulazioan jarriko ditu. Irteera Azpeitiko instalazioetan izango da eguerdiko 12:00etan eta arratsalde 17:30ean. Aste Santuaren ondoren, zerbitzua larunbat, igande eta jaiegun guztietan mantenduko da (astelehenak izan ezik), Domu Santuen zubiraino (igande, azaroak 2).

Urola gustagarri. Bertako produktuak eta ekoizleak, sukaldariak eta jatetxeak, bertako baserriak eta ustiapenak, eta bertako azokak parte hartzen duten proiektuak, bailarako aisialdia eta turismoa sustatzea du helburu nagusizat. Eta hurrengo egunetan, ekimen bereziak izango dira; Bisita gidatu eta produktuen degustazioak egingo dira, apirilaren 19an Beizaman eta apirilaren 26an eta 27an, berriz, Errezilen.

Eskualdeko turismo bulegoa. Loiolako Santutegiaren alde batean kokatzen den bulegoak ateak zabaldu ditu dagoeneko, 2014ko turismo denboraldiari hasiera emanez. Azpeitiak eta eskualdeak dituen aukera guztien berri izan dezakezu bertan.



agenda - apirila

16, asteazkena

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

17, osteguna

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

18, ostirala

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

19, larunbata

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

20, igandea

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

21, astelehena

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

22, asteartea

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea
ASTEA SANTUA 2014
HH5-LH1-LH2
Harrera eguna (10:00-13:00)
LH 3- LH4-LH5-LH6
Harrera eguna (10:00-13:00)

DBH 1, 2, 3, 4 – BATX 1,2
Sukaldaritza txapelketa (10:00-13:00)
URRESTILLAN HH5-LH6
Talde jolasak

23, asteazkena

AZPEITIKO LIBURUTEGIA
50.URTEURRENA
LIBURUAREN EGUNA
AINARA GARCIAREN ARGAZKI

ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

ASTEA SANTUA 2014
HH 5-LH1-LH2
Ingurugiro etxera (10:00-13:00)
LH 3-LH4-LH5-LH6
Dantza: ZUNBA (10:00-13:00)
DBH 1,2,3,4- BATX 1,2
Futbol Txapelketa (10:00-13:00)
URRESTILLAN HH5-LH6
MUGI GAITEZEN

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara
Betharram Aretoa

24, osteguna

ARGIZAIOLA ARGAZKI ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

ASTEA SANTUA 2014
HH5-LH1-LH2
Kamelot (10:00-17:30)
LH3- LH4- LH5- LH6
Txindokiko Itzala (10:00-17:30)
DBH 1,2,3,4- BATX 1,2
Laser Gunea (10:00-17:00)
URRESTILLAN HH5-LH6
Irteera Azpeitiko haurrekin batera

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

25, ostirala

JULIAN RUIZ -en ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

ASTEA SANTUA 2014
HH5-LH1-LH2
Altxorraren bila (10:00-13:00)
LH3-LH4- LH5- LH6
Mendi Buelta (10:00-13:00)
DBH 1,2,3,4 -BATX 1,2
Dantza/ Perkusioa (10:00-13:00)
URRESTILLAN HH5-LH6
Altxorraren bila

SASKIBALOIKO ESKOLEN ARTEKO
TORNEOA (Iraurgi SB)
Adina: 2003.urteko neska-mutilak
Tokia: Kiroldegia

AZPEITIA CUP FUTBOL TORNEOA-
PREVIA (IRG Cup)
Goiz-arratsalde, futbol zelaia

26, larunbata

JULIAN RUIZ-en ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

XV.AZPEITIKO RALLYSPRINTA
(Escuderia Lagun-Artea)
Egiaptapenak: 10:00-12:00
Irteera: 15:00 (Errepide mozketak: 14:00)
Tokia: Euskalerrria kalea (epaitegi plaza)
AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea
ASTEBURU MUSIKALA
IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA
Kaleetan Zehar, 19:30ean

SASKIBALOIKO ESKOLEN ARTEKO
TORNEOA (Iraurgi SB)
Adina: 2003.urteko neska-mutilak
Tokia: Kiroldegia
AZPEITIA CUP FUTBOL TORNEOA
PREVIA (IRG Cup)
Goiz-arratsalde, futbol zelaia

27, igandea

JULIAN RUIZ-en ERAKUSKETA
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea
AZPEITIA CUP FUTBOL TORNEOA
PREVIA (IRG Cup)
Goiz-arratsalde, futbol zelaia

28, astelehena

JULIAN RUIZ-en ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara, Betharram Aretoa
AINARA GARCIAREN ARGAZKI ERAKUS-
KETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

29, asteartea

JULIAN RUIZ-en ERAKUSKETA
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

30, asteazkena

JULIAN RUIZ-en ERAKUSKETA
18:00etatik 20:00etara, Betharram Aretoa
AINARA GARCIAREN ARGAZKI
ERAKUSKETA
"MUNDUKO ARGIAK" Bidaia-argazkiak
Lekua: Sanagustin Kulturunea

AZPEITIKO LIBURUTEGIA
50.URTEURRENA
"GENEROA ETA LITERATURA"
MAHAI INGURUA Laura, Tere Irastorza, au-
relia Arkotxa eta Gema Lasarte. Emakume
Txokoak eta Udal Liburtegiak antolatuta
19:30ean, Emakumeen Txokoan

asteburumusikalak 2014

apirila maiatzakaina

Ekainaren 28ra bitartean musikaz gozatzeko aukera izango da Azpeitian Asteburu musikalak egitasmoari esker.

Astero emanaldi desberdinak ikus ahal izango dira, besteak beste:

- Udal Musika Banda
- Kitarra Taldea
- Juan de Antxieta musika eskola
- Metal Boskotea
- Iraurgiko abesbatza
- Izarraitz Txistulari Taldea